

TREBAKUNTZA 2017-05: DAGOENeko/HONEZKERO

Sarri askotan nahastu egiten ditugu *dagoeneko* eta *honezkero*. Hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Berandu izango da deialdia aldatzeko, honezkero batzordekide guztiei bidali baitizkiegu gutunak.*
2. * *Dagoeneko udaletxea itxita egongo da, aspaldi amaitu baita bilera.*
3. * *Obra horri buruzko erabakia hartuta dago honezkero; aho batez, gainera.*
4. * *Lanean hasita egongo da dagoeneko, aspalditxo lortu zuen plaza eta.*
5. * *Uste dut dagoeneko udaltzainak istripua gertatu den tokian egongo direla.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Honezkero: ziurtatu gabeko ustea adierazten du:

Zazpiak dira: **honezkero** etxean izango da (etxean dagoela **uste** dugu).

Dagoeneko: zerbait egiaztatua adierazten du, kontu jakina da:

Dagoeneko heldu da lanera: oraintxe bertan jaso dut haren mezu bat ordenagailuan.

Iraganaz ari bagara, hobe **ordurako**:

Zazpitan deitu nion bulegora, baina **ordurako** etxerako bidean zegoen.

1. Berandu izango da deialdia aldatzeko, **dagoeneko** batzordekide guztiei bidali baitizkiegu gutunak.
2. **Honezkero** udaletxea itxita egongo da, aspaldi amaitu baita bilera.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

3. Obra horri buruzko erabakia hartuta dago **dagoeneko**; aho batez, gainera.
4. Lanean hasita egongo da **honezkero**, aspalditxo lortu zuen plaza eta.
5. Uste dut **honezkero** udaltzainak istripua gertatu den tokian egongo direla.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99